

ONDARROA. Azpiegitureak Markina-Xemein, Etxebarri eta Berriatuko bizilagunei be zerbitzua emongo deuse

Behargintza enplegu zentroa zabaldu dabe

Enpresa ekimen barriak bultzatu nahi ditu, eskualdearen garapena helburutzat hartuta

Lore Bengoetxea |

Behargintza Artibai zentroa ireki dabe Ondarroan, eskualdeko langabeziari urtenbidea emoteko helburuagaz. Ondarrutarrei ez eze, markinarrei, berriatuarrei eta etxebarritarrei be zerbitzua eskainiko deuse.

Finantzazinoa hainbat erakunderen artean gauzatu dabe. Holan, Ondarroako Udalak, BBK Gazte Lanbidean Fundazioak, Enplegu eta Prestakuntzarako Foru Sailak eta EUDEL-ek bat egin dabe proiektuan. Hitzarmena lau urterako sinatu dabe.

Bakarne Larrinaga da Ondarroako zentroaren arduraduna.

Adierazo dauenez, langabeziari aurre egitearren alkartu dira. «Beharra sortu, dagoena indartu eta eskualdearen garapen ekonomikoa bultzatu nahi dogu», esan dau.

Batez be enpresa proiektu barrii sakadea emotea da Behargintzaren nahia. «Enpresa ideiak daukienei laguntza ekonomikoa be emongo deusagun arren, bideragarritasun ikerketak egin eta aholkularitzea emotea izango da gure oinarritzko betebeharra», azaldu dau Larrinagak.

Proiektu teknologikoak

Hainbat proiektuk azpiegitura handiagoa beharko dabela eta,



LORE BENGOTXEA

Behargintza zentroa hainbat erakunderen artean finantzauko dabe, eta lau urtean egongo da martxan.

Lea-Artibai ikastetxeagaz hartu-emonetan jarri dira. «Markinako eskoleak enpresentzako biberroa daukanez, proiektu teknologikoak bertan kokatuko litzatekez», argitu dau Behargintzako arduradunak.

Hurrengo egunetan zentroaren ganeko informazinoa zabaldu eta, Langai enplegu sustapenerako zentruagaz batera, beharrik bakoien zerrendea

osotuko dabe. «Enpresei inkestea pasau deusegu, daukien eskaria jakin daigun. Heziketeak falta egiten dauenean, modulo bereziak antolatuko ditugu», dino Larrinagak.

Loren Arkotxa alkateak ekimen barria txalotu dau Udalaren izenean. Dana dala, aurrera begira be jarri da. «Beharrezkoa da erakunde publikoen artean merkatarien ganbarea sortzea,

enpresa barri horreek eskualdetik kanpora be beharra egin ahal izateko. Bestela enpresariak etsita geratzen dira, eta martxan ipinitako enpresak itxi egiten dira, sarri», gogoratu dau udal buruak.

Ondarroako Behargintza zentroa Kanttoipe kalean kokatuta dago, Musika Plazako lokalen azpian. Telefonoa 94 683 33 28 da.

LABURAEAN

LEKEITIO

EAJko zinegotzi batek itxi egin deuse karguari

Lekeitioko Udalak batzarra egingo dau gaur. Bertan, Jon Txakartegi EAJko zinegotziak karguari itxi deusala jakinarazoko dabe. Horrezaz ganera, urigintzako gaiekin zerikusia daukien gai biren ganean egingo dabe berba, eta mozinoak be eukiko ditue mahai ganean. Batzarra 20:00etan hasiko da.

ONDARROA

Duinak taldeak kontzentrazinora deitu dau biharko

Duinak taldeak deituta, eskualde mailako kontzentrazinora egingo da Ondarroan bihar, arratsaldeko zazpitan. Adecco ABLearen aurrean batuko dira, «beharraren prekaridadearen arduradun diralako», adierazo dau antolatzaileetako batek. Eki-menagaz bat egin dabe Ondarroako Amatzure eta Lekeitioko Gaztiak taldeek.

MARKINA-XEMEIN. Zulo ugari egin ditue, autoen abiadura moteltzeko



LORE BENGOTXEA

Gidariak kexatu egin dira iraganbideko beharrakaitik

Berriz-Ondarroa iraganbideko beharrak aurrera doaz. Markinatik Ubilla jauregirainoko tartea hartu dau Foru Aldundiak zeregintzat, joan zan urtean onartutako egitasmoari jarraituta. Behar horreen barruan, arekak ipini ditue bidean zehar, auto gidarien abiadura moteltzeko. Hainbat bidaiari kexatu egin dira. «Ondo dago iraganbidea

egitea, danoi be mesede egingo deusku eta. Baina holako zuloak ipintea be gehiegizkoa dala uste dogu, eta arriskutsua be bai, sikuan frenau behar dozu eta; zeresanik ez, kotxea triskatu egin zeinkela», esan dau Bilbora joan etorrian ibiltan dan ondarrutar batek. Bide batez, Ondarroako saihesbideko beharrak be aurrera doaz.

AGENDEA

LEA-ARTIBAI

Tabakoa lagateko ikastaroa: Lea-Artibai Amankomunazgoko Prebentzino zerbitzuak antolatu dau. Izena gaurko emon behar da, Zerbitzuak Ondarroan daukan bulegoan (Musika Plaza azpiko lokaletan). Telefonoa, haxe da: 94 613 4375.

ONDARROA

Ondarroa 2001 urtekaria:

Ondarroako Historia Zaleak taldeak *Ondarroa 2001* urtekaria saltzen ipini dabe, Idiakez, Zurrumurru, Etxahun, Garoa, Irkantz eta Marinar, sei eurotan.

Herri hizkerea jasoteko

proiektuak: Udalaren Euskera batzordeak jakitera emon dauenez, herri hizkerea jasoteko proiektuak bultzatuko ditu. Beste batzuen artean, upin, esakera, berba eta esmoldeak daukaz buruan. Materiala batu eta erabilera praktikoa emotea da Udal Euskera batzordearen asmoa.

Ondarroako Uria II. Rock

lehiaketak: Maketak helbide honetara bidali behar dira: Pedro Maria Unanue Musika Eskolea, Arana tar Sabin kalea 1; 48.700 Ondarroa. Euskal Herriko edozein taldek hartu leike parte. Epea gaur amaituko da. Aukeratzan diranek kontzertua eskainiko dabe.